



XIV ORDU, HAMAIIKA URRATS, HELMUGA BAT

Aralarko Adiskideak antolatuta, 14. aldiz ospatuko da XIV Orduen ibilaldi neurtua maiatzaren 18an 2

TOLOSALDEKO
ETA LEITZALDEKO

hitza



Ostirala
2008-02-22

VIURTEA 1368.ZENBAKIA
ESKUALDEKO EGUNKARIA

WWW.TOLOSALDEKOHITZA.INFO



Sasain Bizkargo cromlecha garbitzen, atzo goizean; helburua «kalte gehiago ez jasotzea» izango da. MIEL MARI ELOSEGI

HISTORIAURREKO ONDAREAK KALTERIK JASO EZ DEZAN LANEAN

LEITZA Sasain Bizkargo cromlecha garbitu zuten atzo, eta ondoren hesitu egin zuten «kalte gehiago jaso ez ditzan» 6

Biarritz baletak 'Gari beltza' ikuskitzuna aurkeztuko du

TOLOSA Bihar, 20:30etik aurrera, Leidor aretoan hiru dantzaldi taularatuko ditu talde gazteak 3



I. GARCIA

IÑAXIO PERURENA HARRI-JASOTZAILEA

«Ez dago adierazterik jasoaldi eder bat lortzen denean sentitzen dena»

LEITZA HITZAren egoitzan izan da leitzarria irakurleen galderak zuzenean erantzuten 7

txokoa
h



4 sarrera pare zozketatu ditugu!

BRUESA GBC
C.B Ciudad de Huelva

OSTIRALA

OTSAILAK 22 - 20:30

ILLUNBE

Hauek dira irabazleak:

- Izaskun Goikoetxea (Alegia)
- Agustin Amiano (Altzo)
- Arantxa Zinkunegi (Tolosa)
- Kontxi Suso (Villabona)

HITZAren harpidedunentzat abantailak

Sarrerak HITZAren Tolosako bulegoan izango dituzue!



Maiatzaren 18an egingo den ibilaldian 68 kilometro zeharkatu beharko dituzte mendizaleek hamalau ordutako tartean. JOXEMI SAIZAR

Maiatzaren 18an ospatuko da, 14. aldiz, Aralarko Adiskideek antolatutako ibilaldi neurtua; martxoaren 25ean irekiko da internet bidezko izen-ematea, eta apirilaren 7an, arrunta.

XIV ordu hamaika pauso

ESTI EZEIZA

Goizean jeikitzen garenetik, berriro ohera sartzen garenean arte hamalau ordu inguru igarotzen dira askorentzat. Denbora honetan guztian hamaika gauza egiteko aukera izaten dugu: gosalduta, lanera joan, bazkalduta, kirola egin, lagunekin zerbait hartu, telebista ikusi... Baina Aralarko Adiskideek denbora hori aprobetxatzeko beste aukera bat eskaintzen dute lau urtetik behin.

Txinako Olinpiar Jokoen urtearekin batera, XIV orduen urtea ere badela esango genuke aurten. 1925ean lehendabiziko aldiz antolatuta zen martxa hau, orduan, hamalau lagunek hartu zuten parte. Azkenekoan berriz, duela lau urte, 2004an hain zuzen ere, 2.979k eman zuten izena. Esan beharrik ez dago beraz, ohiartzun eta izen handia lortu duela frogak honek.

Esfortzu handia eskatzen duten

gainontzeko kirol frogekin bezala, askok eta askok egiten duten galderra da, eazergatik ateratzen diren hainbeste lagun hemen. Mendingo lasai, paisaiarekin gozatzu ibili beharrean, erlojuari etengabe begiratuaz eta denak pilatuta gora eginez. Baina denok dakigu, gizakia beti aritu izan delan orberaren mugak gainditu nahian. Lorpen honen ondoren ekartzen duen betetasunaren bila. Eta ziurrenik, hori da martxa neurtu honetan parte hartzen dutenek ere eskuratuta nahi dutena.

Maiatzaren 18an egingo da

Hiru hilabete eskas geratzen dira 14. aldiz egingo den XIV orduen egunerako. Goizean goiz, Tolosatik emango diote hasiera ibilaldiari mendizaleek, eta denera 68 kilometro zeharkatu beharko dituzte. Egin beharreko ibilbidea duela lau urtekoaren ia berdina izango da:



Tolosako Berazubini egongo da kokatuta helmuga. IRATXE ETXEBESTE

Tolosa, Uli, Gorriti, Lekunberri, San Migel, Igaratza, Amezketeta eta Tolosatik igaroko da. Antolatzaileen esanetan, «Tolosatik Aralar mendilerorako joan-etorria da ibilaldi honi izaera ematen diona, berau ibilian osatzeko behar den denboraz beste». Aralarko Adiski-

deak 2007ko udaren amaieran hasi ziren antolatzen mendi martxa.

Izen-emate egunak

Asko eta asko entrenatzen hasiak daude dagoeneko, eta izen-emateko epea noiz irekiko zain daude.

Hemen, aldaketa batzuk izango dira aurten. Izan ere, internet bidez egin ahal izango da lehendabizi. Martxoaren 25tik aurrera izango da honetarako aukera. Bestetik, elkarteak Tolosan duen lokalean apirilaren 7a igaro ondoren eman ahalgo da izena. Izen-ematearen txandaren arabera aterako dira mendizaleak irteerako gunetik. Joan den urteetako datuak ikusita 2.500-3.000 lagun inguruk parte hartzea aurreikusten dute. Hauak, pixkanaka-pixkanaka, denbora tarte txiki batekin aterako dira irteera gunetik. Gero, martxa neurtu bat izatean, ibilbidean zehar kokatuta egongo diren guneetan zigilu marka jarriko diete.

Frogaren zailtasunak

Frogaren izenak berak dioen bezala, ordu askoko mendi martxa da. Horregatik, horrenbeste ordu oinez egin ahal izateko, hankak ohituta egon behar dute. Beraz, esan beharrik ez dago ere, erabiltzen diren oinetakoei izugarritzko garrantzia dutela. Mendi elkartekoei gomendatzen dute mendiko bota arinak eramatea, txonkatila ongi helduta izateko, eta aldi berean, eroso ibiltzeko.

Ibilbidearen zailtasunei dagokionean, fisikoki, gorrenetako bat, Lekunberri San Migelera arteko tartea da. Bertan, malda handia baitago, eta aurretik kilometro eta ordu asko baitaramatzate mendizaleek bizkarrean. Bestalde, teknikoki minetarako jaitsiera da puntu gogorrenetako bat, harri asko baitaude tartean. Zailtasun hauek guztiak gainditu ahal izateko, beharrezkoa da entrenatzea. Komenigarria da asteburuetan ibilbide luze xamarrak egitea, erresistentzia landuz joateko. Bestalde, maiatzaren 18a baino aste batzuk lehenago, ibilbidea zehaztuko dute antolatzaileek, jendeak aurretik ikusi eta egin ahal izan dezan bidea.


Mendi elkartekoei luzatutako gomendioen artean dago ere, martxan zehar maiz eta gutxi jatea. Gainera, ibilbidean zehar jateko eta edateko hornitutako postuak ipiniko dituzte. Hala ere, komenigarria da, norberak, motxilan ura eta jateko zerbait eramatea. Gainera, aurten, izena ematen dutenei, froga hasi aurretik motxila txiki bana oparituko die. Duela lau urte makilak eman zituzten, eta aurten, aldatzea erabaki dute.

Tolosaldeko eta Leitzaldeko HITZAn jarri
eta Gipuzkoako beste 4 Hitzetan
DOAN agertuko da

HITZAK Gipuzkoan 120.000 irakurle

ESKELAK • 19:00ak arte hartzen ditugu
tolosaldean@tolosaldekohitza.info / Tel.: 943-65 56 95

hilberriak
urteurrenak
eskertzak



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

KULTURA SAILAK DIRUZ LAGUNDUTAKO HEDABIDEA

Laburrak

Hitzaldia izango da astelehenean Orixen

HEZKUNTZA ● Hurrengo astelehenean, hilak 25, 18:30ean hitzaldi bat eskainiko dute Orixen Institutuan. *Geure onetik atera gabe, nola errespetarazi eta aginteari eutsi* izango da hitzaldiaren gaia. Gazte-leraz izango da eta DBHko 1.º, 2.º eta 3. mailako ikasleek gurasoei zuzenduta dago. Hizlaria Hilario Garrudo psikologoa izango da.

Odol-ematea egingo dute gaur, LH Institutuan

ODOL-EMATEA ● Tolosako Lanbide Heziketa Institutuan edol ateratzea egingo dute gaur, 10:00etatik 13:00etara. Horretarako, Gipuzkoako Odol Emaleen elkarteak joan go dira ikatextera.

Alpino Uzturrek iraupen eski ikastaroa antolatuko du

KIROLA ● 1994, 1995, 1996 eta 1997 urteetan jaiotako gaztekoentzat iraupen eski ikastaroa antolatuko du Alpino Uzturre mendi elkarteak. Asteburu honetan, hau da, bihar eta etzi, eta hurrengoan, martxoaren lehen eta 2an izango da ikastaroa Somporten. Informazio gehiago nahi duenak edota izen emateko interesa duenak 685 776 504 telefono zenbakira deitu beharko du.

Lan-taldeen kudeaketa ikastaroan izen-ematea

HEZKUNTZA ● Tolosaldea Goi mailako LH Institutuan, astelehenean, Lan-talde kudeaketa (Adimen emozionala) ikastaroa hasiko da. Oraindik ere izena emateko lekua dagoela adierazi dute. Ikastaroa langileentzat zuzendutakoa da, eta doan da. Izen ematea, ikaste-txean edo 943 651147 zenbakian.

'Gari beltza' ikuskizuna Biarritz Baletekoen eskutik

Dantza ● Talde gazteak hiru koreografia desberdin tularatuko ditu, bihar, Leidor aretoan, 20:30ean hasiko den emanaldian.

Erik Satie-ren musikarekin, «sorgin bretoi batekin maitemintzeko, eta dantza-areto batean elkartutako bikoteen ligatze-jolasekin hun-

kitzeko Johannes Brahms-en hungariar dantzari esker».

Aldi berean narratiboa eta lili-ragarria izan daitekeen dantzaren bidez plazer hartzeko egitaraua da.

» DATUAK

- **Ikuskizuna.** Biarritz Baleta Junior-n *Gari Beltza*.
- **Dantzariak.** David Debernardi, Mathias Deneux, Aurelien Douge, Lea Guilbert, Martin Harriague, Irma Hoffren, Vivien Ingrams, Solene Nusbaum, Garazi Perez eta Andrea Vallescar.
- **Zuzendaria.** Filgi Claverie.
- **Zuzendari artistikoa.** Thierry Malandain.
- **Irakasle gonbidatua.** Iñaki Landaa.
- **Iraupena.** 60 minutu.
- **Prezioa.** 10 euro.

'Grossiennes', 'Ble noir' eta 'Dances qu'on croises'

Lehen koreografia *Grossiennes* izango da, 2000. urtean sortua; dantzariak barra baten inguruan egingo dute dantza. Bigarrena, *Ble noir* da; ipuin formakoa Britainia-ko musika tradizionalarekin, eta emakume gazte baten istorioa kontatzen du. Hirugarrena, *Dances qu'on croises* hitz joko bat da, Johannes Brahms-en musikarekin dantza areto batera doazen hiru bikote jarriko dira dantzan taula gainean.

ERREDAKZIOA

Dantza saio berezia ikusteko aukera izango da bihar Leidor aretoan, Biarritz Baleteko talde gazteak *Gari Beltza* ikuskizuna eskainiko baitu. Saioa, 20:30ean hasiko da, eta txartelak 10 euroren truke erosi ahaliko dira www.kutxa.net-en, Telekutxan, Servikutxan eta Leidorreko leihatilan (zine saioetan).

Hiru pieza koreografiko eskainiko dituzte Leidor aretoko eszenatokian. Hala, dantzarien bertutez gozatzeko parada izango da



Biarritz Baleteko junior taldea emanaldietako batean. HITZA

Nekeza da euskaldun izatea



» Kale kantoitik

Joxemi Saizar

Ez naiz inoiz gauzak zehatz-mehatz gogoratzen dituen horietakoa izan, baina duela bost urte gertatutako batzuk buruan iltzatuta dauzkatz eta ez zaizkit sekula ahaztuko: otsailaren 20ko goizeko ordu txikitako deia *Egunkaria* itxi eta hamar lagun atxilotu zituztela esanez, Acebes euskararen aldeko operazioa izan zela esaka, *Egunkaria*-ren ahotsa ez zela isildu gure *Tolosaldean Egunero*-ren azpiegitura eta mantxetari esker, egun haietan gure egunkari txikian lan egiteko baldintza kaskarrak eta kemen erraldoia, 22ko manifiesto Donostiako Antiguoko tunelean sentitu nuen elkartasun-zirrara, 25eko gauean Soto del Real-etik atera berri zen Martxelo irratiz, malkoei ezin eutsiz, entzun nuen sentitu nuen negargurea, hurrengo goizaldean hari emandako besarkada, Pellok jasan behar izan zuena gaixo izanda, Iñakiren kartzelaldi luzea, haien ongi-etoerriak kaleratu zirenean Euskal kulturaren pertsonai ezagun eta garrantzitsu horiek torturatuko zituztenik ez zitzaigun burutik ere pasatzen. Euskaraz bizitzen saiatzea, normalizatzea, zen haien (eta gure) delitua. Horrek ematen die min. Nahikoa da guardia zibilak gauean etxera bidali, oinarririk ez duten akusazioak leporatu eta gero zu zara aurrakoa frogatzen ahalagindu behar duena.

Bost urte pasa ondoren, auzia ez da itxi, epaiketa ez da egin eta 280 urteko kartzela eskaera dago. Erne egon beharko dugu, gure burua defendatzen jarraitzeko.

Ruper Ordorikak abestu zuen: «Inork ez zidan esan euskaldun izatea zein nekeza zen, hobe nuela hautatzea munduko hiritar izatea». Hil berri den eta Ruper bezala txantxikua zen Juanito Ugartek ederki asko zekien, mendian arrano eta itsasoko arrain izatea hautatu baitzuen.

Iragarki laburrak

LANA

■ **Tabernaria.** Anotako Itzuli taberna neska euskalduna behar du. 8 edo 4 ordurako. 635 74 52 01 edo 943 69 43 13.

BESTERIK

■ **Arratoi txakurkumeak.** Oparitzen ditut. 645 70 68 21.

EAK Greba Orokorraren inguruan ezker abertzaleak izandako jarrera salatu du

Politika ● «Herriari hitza eta erabakia diote, baina erabaki hori gustuko ez dutenean isilarazteko?», adierazi dute.

ERREDAKZIOA

Eusko Alkartasunaren ustez, «ezker abertzaleak Greba Orokorraren izandako jarrera beraiek deituriko ekimenetan parte hartzeko motibazio gutxi dugu ikustearen beldurra definitzen du».

Hilaren 14ean ezker abertzaleak Greba Orokorra deitu zuen Euskal Herri osoan EAE eta EHAK alderdien jarduna eten iza-

na salatuzko helburuz. Grebaren balorazioa egitean, «arrakastatsua» izan zela, eta «gehiengoak bat egin» zuela azaldu zuten. Honen inguruan, Tolosako Eusko Alkartasunak adierazi du «harridura izugarria» eragiten diela «horrelako balorazioa egiteak eragiten duen isolamendu politikoa. Badi-rudi ezker abertzaleko ordezkariak ez gurtzi axola zaiela 'arrakasta' horren zergatia, berdina zaiela jendeak gogoz edo beldurrez jokatu zuen». EAren ustez, «herria itxita zen bilatzen zuten argazkia».

Halaber, Eusko Alkartasunaren hitzetan, «tamalgarria da beraien ahoak demokrazia, duintasuna, eskubideak, herria eta parte-har-

tzea bezalako hitz potoloz bete-tzen dituztenak lantokietzberdine-tatik taldeka 'informatzen' ari-tzea. Ez zen beharrezkoa lan-pos-tura joan eta berrinformatzea, bide batez ixteragonbidatuz. Ez al litza-teke aberasgarriagoa herritar ba-koitzari libreki erabakitzen uztea? Mesede egin al zion grebari herri honetako langileen auto kontze-sionario batetan sua pizteak?».

«Beldurra» dela «jarrera hau izatearen arrazoia» adierazi dute. «Jendeari libreki jokatzeko uzteko beldurra, bakardadean sentitzea-ren beldurra». EAK dioenez, «herri honen gehiengoak Espainiako Go-bernauren gehiegikeriak salatzen ditugula jakin arren, ezker aber-

tzalearen elkartasun ekimenetan parte hartzeko motibazio gutxi-gi dugu ikustearen beldurra dute».

«Lotsagarria da egunkariak ix-ten, demokrazia usteltzen eta ba-daez padako espetxeratzeak eta torturak bultzatzen dituen Espai-niar estatuaen jarrera» gehitzen du EAK; «baina ez du lotsa gutxi-gio eragiten erailketak, estorsioak eta mehatsuak ematen direnean isiltzeak, duintasunaren, demo-kraziaren eta koherentziaren era-kusle bihurtu nahi izana ikusteak, herri xehe eta langilearen orde-zkari bihurtu nahi izatea, alegia.

«Herriari hitza eta erabakia dio-te, baina erabakia gustagarria ez denean isilarazteko?», diote.

Blues giroa berriro bueltan

Zizurkil » Blues Musikaren VI. Jaialdia antolatuta dute biharko; The Reverendos, Los Reyes del K.O. eta Special 20 ariko dira.

IMANOL GARCIA

Berriro ere iritsi da blues musikaz gozatzeko unea Zizurkilera. Dagoeneko seigarren aldiz antolatuta du Udalak Blues Musikaren Jaialdia, *Zizurkilen ezerez ta festa!* zikloaren baitan. Doinu hauen zaleak eta zuzeneko musika gustuko dutenek, aukera dute bihar, herriko hiru tabernatan, beste hainbeste emanaldi entzuteko.

Egitarauari dagokionez, 23:00etan hasiko da lehen emanaldia. Atxulondo tabernan The Reverendos bizkaitarrek joko dute. 00:15ean eta Egarrri tabernan, Los Reyes del K.O. galiziarrek ariko dira. Azkenik, Aurrera tabernan eta 01:30ean, Special 20 madrildarren txanda izango da. Sarrera doakoa da eta aurreko urteetako arrakasta izatea espero da aurten ere.

Taldez talde

The Reverendos taldea Alvaro Martínez, gitarran, Igor García, teklatuan eta ahotsa, Edu Uña, kontrabaxuan eta Edu Landeta, baterian, osatzen dute. Hasieran, 1997an BlueSpirits izenarekin hasi ziren Martínez eta García eta urte batzuk pasatu eta gero egungo taldea osatu eta izena aldatu zioten. Beraiek ekoiztutako bi CD atera dituzte eta kritikoei harrera ona egin diote.

Los Reyes del K.O. bigarren aldiz joango dira Zizurkilgo Blues Jaialdira. Marcos Coll eta Adrian Costa dira taldearen arima. Galiziarrek izatez, egun Alemanian bizi dira. Izen handiko musikariek in jo dute. Zizurkilen egon zireneko oroitzapen oso ona dute: «Oso ondo ibili ginen, festa handia egin genuen», azaldu du Marcos Colle. «Berandu bukatu genuela gogoratzen naiz eta oso giro ona izan zela». Gogo handiz daude berriro ere jaialdian jotzeko.

Special 20 taldeak bost musikari biltzen ditu. Blues musika egiteaz gain, afroamerikar, jazz, r&b, soul,



The Reverendos taldeak Atxulondo tabernan joko du, 23:00etan. HITZA



Egarrri tabernan, 00:15ean, Los Reyes del K.O. ariko dira. HITZA



Special 20 taldearen txanda 01:30ean izango da, Aurrera tabernan. HITZA

r&r estiloko ere jorratzen dituzte. Lehenengo aldia da Gipuzkoan jotzen dutela eta irrikitan daude, Rafael Fernandez-Gil baxu-joleak dioenez: «Oso ondo hitz egin digute jaialdiaz. Aurreko urtean egon zen Speak Low taldearen gitarris-

ta gurekin etorri behar zuen, azkenean taldeko gitarrista etorriko bada ere, eta gogo handiak zituen, oroitzapen oso onak zituelako». Abesti animatuak jotzen dituztela azaldu du eta abeslariaren lana ere nabarmendu du Fernandez-Gilek.



Markel Olanoren bisita herrira

IRURA » Markel Olano ahaldu nagusiak bisita egin zuen atzo Irurara eta harrera egin zioten Marimi Ugalde alkateak eta Eugenio Loidi Iruratarrak taldeko zinegotziak. Herria erakusteaz gain, Ugaldek laguntza eskatu zion Olanori hainbat gaietan eta batez ere errepideekin ikusi behar duenetan: Kale Nagusia Diputazioaren ardurapean egotea, autobus geltokia, Anoeta eta Irura arteko zubia eta Kale Nagusiko trafikoa, besteak beste. Olanok, laguntzak ematerakoan, lehentasunak zehaztearen garrantzia nabarmendu zuen. Bestalde, azken urteotan Irurak «hazkunde orekua» egin duela esan zuen eta hori «txalogarria» zela gaineratu zuen. i.e.



Txikiaren gozameneko

VILLABONA » Jesusen Bihotza Ikastolaren Kultur Astearen baitan, Potxin eta Patxin pailazoaren emanaldia izan zuten atzo arratsaldean. Txikienei zuzendutako emanaldia izan zen eta gozatu ederra hartu zuten hauek. Gaur, besteak beste, *Satorrak* antzezlanak ikusteko aukera izango da Gurea aretoan, 19:00etan. Sarrera doan da eta herri guztiari zabaldua. Ikastolak bere Hezkuntza Proiektuan euskal kultura eta euskararen zabaluntzan dagoen konpromisoaren baitan kokatzen du egitasmoa. HITZA



'Egunkariaren' alde, elkarretaratzea

ALTZO » *Egunkaria libre* lelopean 30 lagun inguru elkartu ziren Altzon herenegun, *Egunkaria* itxi zutela bost urte betetzen zirenean. Eskualdeko beste hainbat herritan bezala, elkarretaratu zirenek *Egunkaria* auzia itxeko eskariarekin bat egin zuten. HITZA

Laburrak

Herriko festak antolatzeko bilera hilaren 25ean

ANOETA » Herriko festak antolatzeko hurrengo bilera hilaren 25ean izango da, 19:00etan, udaletxean. Udakultura batzordeak herriko talde guztiak eta herritar oro animatzen ditu bilera horretan parte hartzera.

Agenda 21eko bilera egingo dute gaur

ALKIZA » Agenda 21eko bilera egingo dute, gaur, 20:30ean, Kultur Etxeko bideo gelan. Besteak beste, eskola berria, fosa septiko berria, haur-txokoa eta taxi-busari buruz hitz egingo dute. Herritar guztiak bertara joateko deitu die Udalak.

Tolargik argindar mozketara egingo du bi zenbakitan

TOLOSA » Tolargik jakinarazi duenez, argindar mozketara egingo du hilaren 25ean, 08:20etik 11:40era Batxiller Zaldibia 1 eta Gernika 8 zenbakietan. Mozketara instalazioetan hobekuntza eta mantenimenduan lanak egiteko asmoz da.



Leaburun Andoni Otegi gogoan izango dute Independentzia egunean. HITZA

'Independentzia Eguna' Amezketeta eta Leaburu-Txaraman

Politika » 'Independentzia Eguna' jai giroan ospatuko den arren, independentzia eskaerak egingo dira modu ezberdinetan.

ASIER IMAZ

Leaburu-Txaramako eta Amezketako ezker abertzaleek *Independentzia Eguna* ospatuko dute etzi 10:00etatik aurrera eta egun guztian zehar.

Jai giroak eta independentzia eskaerak bat egingo dute bi herrietan.

Leaburu-Txarama

Kirolarekin ekingo diote ospaketei igandean Leaburun. Herriko pilotalekuan, Pilota Txapelketa Herrikoa antolatu dute eta bertan edonork parte hartu ahal izango du. Antolatzailerik baldintza bakararra jarri dute, «09:45ean frontoian euskal selekzioko kamisetarekin azaltzea».

Pilotaren ondoren, 11:30ean hamaiketako egingo dute eta indarrak berrituta Haritza landatuko dute, ikurrinari omenaldia eginaz, bertsolari eta txalapartarien babesean. 13:00etako Toka Txapelketaren aurretik, argazki herrikoia aterako dute.

Independentzia Eguna ongi amaitzeko, mahai inguruan eseriko dira. Lehenik bazkaria dastatuko dute, ondoren argazki erakusketan parte hartuko dute eta azkenik, mahai jolasak izango dituzte.

Egun guztian zehar, antolatzailerik jakinarazi dutenez Andoni Otegi gogoan izango dute; «Andoni euskal preso politiko leaburuarri postalak idazteko aukera izango da».

Amezketeta

Egun berean, hau da, etzi, Amezketan ere *Independentzia Eguna* antolatu du ezker abertzaleak.

Leaburu-Txaraman bezala, hemen ere jai giroak independentzia

eskaerarekin bat egingo du. Ekitaldiak 10:00etan hasiko dira, Diana-rekin hain zuzen ere eta 11:00etarako ume jolasak antolatu dituzte.

Kirolak ere bere lekua izango du 12:00etan, Amezketeta eta Orendainen arteko herri kirolen lehiarekin. Taldean, *Independentzia Eguna* ospatzera gerturatzan direnek 14:00etan bazkaria egingo dute eta 16:00etan Mus Txapelketari ekingo diote.

Batzuk karta jokoan dauden bitartean, haurrek pailazoekin jolas-teko aukera izango dute 17:00etatik aurrera. 19:00etan manifestazioak emango dio egunari amaiera, *Guk independentzia* lelopean.

» ETZIKO EGITARAUAK

Leaburu-Txarama

■ **10:00etan.** Pilota Txapelketa Herrikoa.

■ **11:30ean.** Hamaiketako.

■ **12:00etan.** Haritz baten landaketa.

■ **Ondoren.** Ikurrinari omenaldia egingo diote.

■ **Ondoren.** Bertsolariak eta txalapartariak.

■ **Ondoren.** Argazki herrikoia aterako dute.

■ **13:00etan.** Toka txapelketa.

■ **14:30ean.** Bazkari herrikoia.

Bazkaltzen ari diren bitartean argazki erakustaldia egongo da, eta ondoren mahai jolasak.

■ **Egun osoan.** Andoni Otegi euskal presoari postalak idazteko aukera egongo da.

Amezketeta

■ **10:00etan.** Diana.

■ **11:00etan.** Ume jolasak.

■ **12:00etan.** Orendain eta Amezketeta arteko herri kirol lehia egingo dute.

■ **14:00etan.** Bazkaria.

■ **16:00etan.** Mus Txapelketa.

■ **17:00etan.** Pailazoak.

■ **19:00etan.** Manifestazioa, *Guk Independentzia* lelopean.

Ibarran Langostinoren lehen Moto Bira, etzi

A. IMAZ

Ibarrako Langostino Moto Kultur Elkartek aurtengo egutegiko lehen Moto Bira egingo du etzi. Ohi bezala, San Bartolome plazan geratu dira 09:30ean eta motozaleei gonbidapena luzatu die bertara ager daitezen.

Hala eta guztiz ere, antolatzailerik jakinarazi dutenez, alde aurretik izena ematea komeni da, hamaiketako egiteko bost euro ordaintzeaz gain, zenbat motozale elkartuko diren jakiteko. Horretarako hiru telefono zenbaki jarri dituzte e-mail batekin batera: langostinomotofesta@gmail.com eta zenbakiei dagokienez: 630 78 42 13/670 41 79 15/636 40 31 70.

Berrikuntza bezala berriz, Moto

Festaren aurretik antolatuko diren bost Moto Biretatik hirutara joaten denak, jaiaren egunean %20ko beharpena izango duela jakinarazi dute Langostinoko kideek.

Ibilaldia denentzat egokia

Ibarrako taldeak ibilaldia aurkeztearekin batera, ibilbidea edozein motako motoentzat egokia dela azpimarratu nahi izan dute.

Ibarratik irten ondoren, Alegiara abiatuko dira Goierri bidean. Hemendik Nafarroara joango dira, Ataundik Etxarri Aranzera joanaz. Lakuntza, Huarte Arakil, Aralarko San Migel eta Lekunberriri ingaro ondoren, Leitзара iritsiko dira, Berastegitik 13:30ak inguruan Ibarrara itzultzeko.

L Laburrak

2008. urteko kiroldegiko abonoaren ordainketa

IBARRA ■ Ibarrako Udalak mezu bat igorri die herritarrei kiroldegiko abonoaren inguruan, martxoaren 15era bitarte, 2008. urteari dagokion kiroldegiko abonoari dagokien udal-tasaren ordainagiriak kobratuko direla adieraziz. Arestian aipatutako epea igaro ondoren, bide exekutibo kobratuko direla azaldu dute.

Candanchura eski irteera hilaren 29an

BELAUNTA ■ Kultur Etxeak eta Oar-gi Mendi Elkartek Candanchura (Aragoi) eski irteera antolatu dute hilaren 29rako. Izena eman nahi duenak, Belauntzako Kultur Etxean edo Tabernan izango du aukera.

Euskadin bizi naiz ni. Ez nintzen hemen jai, baina hemen da nire etxea eta herriagotzat dut nire burua. Gauza asko egin nahi ditut. Eskolatu. Ikasi. Badituzt aukerak hemen eta baiatu egongo naiz. zu, non bizi zara?

eman botoa | EAJ PNV
www.eaj.pnv.eu



Harriak garbitu ondoren, harrezpila kanpotik piketez babestu dute. MIEL MARI ELOSEGI

Sasain Bizkargo cromlecha garbitu zuten atzo, eta ondoren hesitu egin zuten, Nafarroako Arkeologia Sekzioko Txaro Mateo arkeologoak azaldu zuen bezala «kalte gehiago jaso ez ditzan».

Heriotzaren zantzuak babesten

NAIARA GARZIA

Atzo goizean udaletxeko zenbait langilek eta mendiko zeladoreek Leitzalarko cromlech bat garbitu zuten, eta hesia jarri zioten. Cromlech hau aurrehistoriako monumentu bat aditua den Luis Millanek aurkitu zuen. Bertan, udaletxeko langile hauek gain, arkeologo bat ere izan zen, Nafarroako Arkeologia Sekzioak bidalitakoa, Txaro Mateo, eta berak, cromlecha zehatz-mehatz zer den azaldu zuen. «Zirkuluerdiko forma duen monumentu megalitiko bat, kanpoan tinkatutako harriak ditu, eta monumentuaren barruan ehorzketak egiten zituzten. Batzuek hildako bat dute, beste batzuek bat baino gehiago izan ditzakete».

Jakina da Leitzalarreko basotik egur asko ateratzen dutela eta kamioiak gora eta behera ibiltzen direla. Cromlech honetan ere nabarmena da gizakiak azken urteetan utzitako aztarna, zati bat suntsitu baitu. Horregatik, arkeologoak monumentu hau makilekin ingu-

ratzeak duen garrantzia azpimarratu zuen. «Nire ustez gauzarik garrantzitsuenaren egiten ari diren mugaketa lana da, aztarnategiak kalte gehiago izan ez ditzan, eta sakonago aztertu behar ez den arren, jendeak jakin dezala hau hemen dagoela eta nolabait babestu egin behar dela». Horregatik piketez inguratu zuten atzo. Arkeologoak atzo bere lana zein izan zen ere azaldu zuen: «Harriak kentzeko ohitura handia dagoenez eta balio arkeologikoa dutenez, harriak mugitu ez ditzaten kontrolatzea da nire papera hemen».

Cromlechak, menhirrak...

Hauek, ordea, ez dira hemen inguruan dauden monumentu prehistoriko bakarrak. Migel Mari Elosegi biologoak bere garaian bi artikulatu idatzi zituen honen inguruan, eta hauetan, ezagutzen diren monumentu prehistoriko guztiak bildu zituen, besteak beste, Urdolako harrespilak (edo cromlechak), Mendibilko trikuharria (1981. urtean Club Vasco de Camping tal-

deko kideek aurkitua), Errolle Gairneko trikuharria (1982. urtean Jose Migel Elosegi aurkitua), Biuztaingo trikuharri eta tumuloa (1920. urtean Barandiaranek aurkitua), Urepeleko tumuloa...

2000. urtean, Aranzadiko kideek Losarrietako trikuharria topatu zuten, Pastaingo bordatik oso hurbil dago eta Elosegi artikuluan azaltzen duen bezala, «bideak, neurri batean, monumentua harrespila bat topatu zuten, Sarasain Bizkarreko harrespila». 1983. urtean Iñaki Gazteluk Urepeleko harrespila aurkitu zuen.

Azkeneko aurkikuntzak

Duela 4 urte Elosegi, beste artikuluan batean egindako zenbait aurkitu berri ematen zuen. 2003. urtean, Elosegi berak trikuharri berria aurkitu zuen Aitzmurdi izeneko parajeen. «Harri-pila handi xamarra dago han eta erdi urratua egoteaz gain, gainean monumentuarenak ez diren zenbait harri

ditu, seguruenik, garai bateko artzainen batek itxituraren bat egin ahal izateko».

Bestalde, 2004. urtean ere Aranzadiko kide batek, Iñigo Txintxurretak, bi trikuharri aurkitu zituen Iruson. «Aurkikuntza hau harri-garria izan zen» dio Elosegi, «izan ere, ehiztarietako postuetara igotzeko erabiltzen duten bidezidorretik berta xamarrean daude, eta Irusoko etxetik eta errepedetik 5 minutura». Iruson egindako aurkikuntza sakonago aztertze asmoz, eta Aranzadi eta Gorostiko kideak bertaratu ondoren, monumentu prehistorikoetan aditua den Luis Millanek Koldo Martinezi, Deustuko Unibertsitateko geologia irakasleari, hura aztertzerako joateko gonbitea luzatu zion. «Badirudi goetia izeneko mineral bat ateratzen zutela, eta litekeena da harri mota horretatik zilar pixka bat lortu ahal izatea ere». Irakasle honek, Leitzan gain, Aian eta Baztanen soilik ikusi ditu antzeko aztarnak, eta bi kasu horietan erromatar garaikoak direla dio Elosegi.

Osoko Bilkuran Udala «konponbide demokratiko baten alde»

Altzo » '18/98 auzia' «irmoki» salatu zuten osoko bilkuran, eta «konponbide demokratikoa» aldarrikatu.

ERREDAKZIOA

Altzoko Udalak joan den astean egindako osoko bilkuran 7 puntu onartu zituen.

«Udal honek irmoki salatzen du 18/98ko epaia eta atzean dagoen Euskal Herriaren aurkako eraso», dio lehenengo puntuak. Ildo honetatik jarraituz, bigarren puntuan Espainian ez dagoela «demokraziarik eta Euskal Herriarentzako etorkizunik ere» adostu zuten.

18/98ko auzia osoko bilkuraren oinarriko gaietako bat izan zen, onartutako beste zenbait puntutan azaldu zuten bezala. «Udal honek bat egiten du Euskal Herriaren eskubideen aldean egiteagatik 18/98 auzian auziperatu eta zigortuak izan diren gizon eta emakume guztiak».

T Telefonoak Larrialdiak. ((112))

OSASUNA.

Algaldeia. Osasun z.: 943 653212

Anoeta-Alkiza-Hernialde.

Medikua: 943 65 23 39

Asteasu. Medikua: 943 692423

Baliarrain. Medikua: 943 889003

Berastegi-Elduain.

Medikua: 943 683361

Bidegoian. Medikua: 943 681134

Ibarraldea. Osasun etxea: 943 672411

Ikaztegieta. Medikua: 943 653329

Irura. Osasun zentroa: 943 690720

Leitza. Osasun z.: 948 510800

Orendain. Medikua: 943 655595

Orexa. Medikua: 943 682228

Tolosa.

Anbulatorioa, larrialdia: 943 461111

San Esteban: 943 006800

Germikako arbola: 943 006900

Amarozko dispen: 943 672637

Asuncion klinika: 943 675799 -

943 67 53 90 (larrialdiak)

DYA: 943 672536

Gurutze Gorria: 943 674888

Villabona. Anbulat.: 943 006970

Zizurkil. Aiztondo zerb.: 943 693930

GARRAIOAK.

Renfe: 902 24 02 02

Donostiako autobusa: 943 361740

Tolosalde bus: 943 650621

Leitzaran autob.: 948 221015

Taxia: 943 670420

Taxia (Leitza): 608 873016

BESTERIK.

Ertzaintza: 943 538820

Tolosa-Udalaitzaingoa: 943 675858

Tolargi: 943 650016

Iurramendi egonitza: 943 670325

Tolosa gasa: 943 675320

» HISTORIAURREKO MONUMENTUAK

Definizioak

■ **Trikuharriak.** «Garai bateko gizakiek hildakoak ehorztekako eraikitako monumentuak dira. Leitzakoek 2000-4000 urte dituzte».

■ **Harrespilak.** «Lurrean tente sartuta eta borobilak osatuz jarritako harriek osatutako hiletako orogarririk dira».

■ **Tumuloak.** «Antzinako gizakiek egindako harripilak dira».

■ **Iruinarr edo menhirrak.** «Antzinako gizakiek lurrean tente sartzen zituzten harri handiak dira, baina hauen esanahia ez da oso garbi ezagutzen».

Leitzako monumentuak

■ **Trikuharriak.** Leitza inguruan daudenek 2000-4000 urte inguru dituzte: Mendibilkoa, Errolle Gaineakoa, Biuztaingoa, Losarro-

bietakoa, Karakoletakoa, Aitzmurdikoa, Irusoko bi eta Jentilen Arrobikoa.

■ **Harrespilak.** Hauek dira Leitzan daudenak: Urdolakoak, Sarasain Bizkarrekoa eta Urepelekoa.

■ **Tumuloak.** Biuztaingoa, Urepelekoa, Txarakoa, Baztarlakoak eta Miztorregietakoa.

■ **Iruinarr edo menhirrak.** Leitzan, oraingoz, bakarra da ezagutzen

den iruiñarria: Aritzko mendian dagoen Errolan Arrie. «On Joxe Migel Barandiaran ospetsua izan zen Errolan Arriaren berri eman zuen lehena, eta badirudi Ozparrungo Joxe Joakin Sagastibeltza izan zela harri berezi hori 1920. urtean erakutsi ziona».

Hauek guztiak Migel Mari Elosegi aipatutako artikuluetan bildutako definizioak dira.

E **Elkarrizketa digitala** info

INAXIO PERURENA ▶ Harri-jasotzailea

«Jasoaldi eder bat lortutakoan sentitzen dena ez dago adierazterik»

Leitza ▶ «Behin harriarekin hasita gorputzak jarraitzea eskatu egiten» duelako da harri-jasotzailea; «abizenak pisatzen» duela baina «ohituta» dagoela dio leitzarrak.

ERREDAKZIOA

Inaxio Perurena (Leitza, 1984) HITZaren egoitzan izan zen atzo, irakurleen galderak erantzuten.

Harriak asko pisatzen al dituzte? Ibai Amondarain (anoeta)

Harriak beti berdin pisatzen du. Askotan gorputzak izaten ditu gorabeherak eta egun horietan gehiago pisatzen du. Egundorietan «entrenamendua ez banu egin izan hobeto» pentsatzen duzu.

Zure aitaren itzala sentitzen al duzu zure lanbidean? Aitor

Betidunik. Lehenengo aldiz aitarekin konparatu ninduten bost urte nituela. Lehenengo erakustaldia egin nuenean herriko gazteak, kazetari bat etorri eta galdetu zidan noizko gaindituko nuen aita.

Noizko harri zilindriko bat bizkarreteratu beharrean emakume diabolobat? Joseba

Nik lehengo martxatik jarraituko dut. Emakume diabolok eta bestelakoak modari utziko dizkiogu.

Aupa Inaxio! Zure aita bezain onazatea iritsiko zarela uste al duzu? Nerea

Aita bezain ona ez dakit, baina ahal dudan onena egiten saiatuko naiz.

Astean zenbat aldiz eta zenbateko denboraz entrenatzen duzu sasoean egoteko? Maialen

Marka handia prestatzen ari naizenean asteazken zortzi entrenamendu: astelehena eta ostegunetan bi entrenamendu ordu eta erdikoak, astearte eta ostiralean entrenamendu bakarra, ordu eta erdikoa ere, eta asteazken eta larunbatetan marka egiteko erabiliko dudako harriarekin egiten ditut saioak.

Harri-jasotzaile ez bazina, zer gustatuko litzazuke izatea? Mikel

Ezin dut imaginatu nire bizitza harri-jasotzaile izan gabe, txikitatik nabil mundu honetan. Ez dut sekula pentsatu beste zer egin nezakeen. Hala ere, pilotari izatea ez legoke gaizki.

Zein da irakurri dezun azken liburua? Iker

Bertsolari aldizkaria irakurtzen dut. Nahikoa liburua da hori.

Nolatan harri-jasotzaile? Umetatik etxean ikustea bultzada bat da. Gainera behin harriarekin

bulteka zabiltzala, gorputzak eskatu egiten dizu. Erraza da ulertzea: kilo batzuetara iristen zarenean, ikusten duzu zenbateko progresioa egin duzun eta gehiagora pentsatzen hasten zara eta oharitu gabe engantxatu.

Zer da pisuagoo, astebururor altxatzen dituzun harriak edo Perurena abizenak sor dezaken presioa?

Onartu beharra dago Perurena abizenak pisu handia daukala, baina dagoeneko ohituta nago.

Parrandarako astia ematen al dituzte zure lanbideak?

Normalean, errekor baterako prestatzen ari naizenean ez, baina lortzen bada, parrandarako beti izaten da aukera «ospatzeko». Marka garaietatik kanpo ez zara entrenamenduetan egoten burubelarrri eta orduan ere ateratzen naiz.

Noiz arte ikusten duzu zure burua harriak jasotzen?

Aitak 51 urte ditu, belaunetako lesioak eta gauza asko pasata, baina hor dabil oraindik. Nik ere, nire gorputzak ahal duen arte segitu nahiko nuke.

Bizkarreko arazo handiak izaten al dituzu? Zenbatero joan behar izaten duzu medikuarengana? Aitzol

Orain hiru bat urte izan nuen fibra apurketa gerrian eta hor masajistarekin moldatu nintzen. Aitonak zioen bezala, gaizki zaudenean bakarrik joan behar da medikuarengana.

Zer kirol gehiago gustatzen zaizkizu?

Esku pilota eta herri kirolen munduan aizkora ere bai. Futbolari alergia handia diot!

Etorkizuna ikusten al diozu harri-jasotzeari? Miren

Orain gazte batzuk badabilzta, baina onartu beharra dago oso gutxi gaudela eta aurrera begira gaur egungo aro moderno honetan, ematen du harri-jasotzeak ez duela lekunik eta gimnasio modernak, berriz, bai. Erakustaldiak asko jaitsi dira. Lehen edozein herriko festetan egoten ziren eta orain gero eta gutxiago.

Aupa Inaxio! Zein da zure hurrengo erronka? Milesker

234 kiloko harria esku batekin altxatzea buruan dabilkit eta nahiko agudo egin nahiko nuke. Ea entrenamenduek zer dioten.

Behin ere jaso al duzu aita bizkarreteratu?

Ezta sekula ere. Aitari diodan errespetuarengatik izango da. Lagun bat edo beste bai.

Gizakia beti markak hausten. Harri-jasotzen zein uste duzu dela topea? Iñaki

Harria jasotzen topea ez dago jakiterik. Atletismoan adibidez oso marka onak egin arren, beti ateratzen da beste kirolariren bat hori gainditzen duena eta harri jasotzen zergatik ez.

Munduan beste inon ezagutzen duzu harri-jasotzea egiten denik? Ekain

Garai bateko Olinpiadetan, indar probetan harria erabiltzen zen eta Atenasko museoan badago harri bat duena idatzi bat: «Binonek esku batekin altxatzen».

Zer jan behar da harriak jasotzeko?

Adibidez harri handi bat altxatzeko, gorputzak karga izan behar du eta karga hori lortzeko jakirik garrantzitsuena haragia da. Eguerdiero eta gauero haragia jaten dut eta entrenamenduen parte bezala jotzen dut. Aitak ere marka handienak lortu zituenenean ere haragi asko jaten zuen.

Non parte hartu zenuen lehenengo aldiz?

Leitzako plazan, herriko festetan, bost urte nituela.

Aita-seme arteko apustuak egiten al dituzte?

Erabaki bat hartu genuen, nik 13 urte nituela erakustaldi guztietara elkarrekin joango ginela eta geroztik elkarri lagunduz jarraitzen dugu.

Noiz ikusiko zaitugu Goenkalen? Mikel

Galdera hori askotan egin didate, baina lan hori aitari uzten diot.

Oraintxe ari naiz zure elkarrizketa irakurtzen. Mundiala da HITZAn egotea horretarako. Zer moduz tratatzen ari dira? Je, je...

Oso ongi. Mekanografiakasten ari naiz.

Zein da une honetan dagoen harri-jasotzaile onena zure ustez? Aitor

Niretzat ez da nire aita delako, baina betidunik harri-jasotzaile onena bezala nire aita jo du, baina gaur txapelketetako lanetan Aimar Irigoien dut gogokoan.

Noizko desafioa Aimar Irigoienekin? Leire

Bide ezberdinetan ibiltzen gara eta nik behintzat harri handiekin eta esku batekin nire gorputzak ehuneko ehuna eman arte jarraituko dut. Gero izango dira beste lanetarako aukerak, baina ez dut nire burua ikusten desafio batean.

Zer egin behar du harri-jasotzaile izan nahi badut?

Lehenengo gogoia izan, zeren go-



I. GARCIA

gorra da. Eta gero, logika erabiliz, harriaren antza duen pisu bat hartu, norbere gorputzaren arabera eta ikasi. Denok balio dugu harriak jasotzeko.

Herri kirolak eta herri kirolariak asko gustatzen zaizkit. Asko ligatzen al duzu ospearekin?

Herri kiroltan ibiltzeagatik ez dut uste gehiago ligatuko denik, horretan futbolariak zorte gehiago dute. **Ze desafio botako zenioke aitari?** Desafioa beharrean, zortea bereztako eta urte askoan jarrai dezala lesio gehiago etorri gabe.

Nola ikusten duzu herri kirolen mundua une honetan?

Esan daiteke gaur ongi daudela, baina afizioa asko jaitsi da. Lehen erakustaldietan aukera eman harria probatzeko eta asko saiatzen ziren. Gaur egun oso gutxi probatzen dute.

Etorkizunezko gazteak ba al datoz harria jasotzen?

Bai, 15 urtetik beherako batzuk badaude, baina gehiago balira hobe. Gure seme-alabei erakutsi beharriko diogu.

Aitak eman dizun aholkurik onena zein da?

Aholku asko eman dizkit, baina nik uste onenak berak pasatutako lesioengatik nik lesiorik ez izateko balio izan duten horiek izan dira.

Askotan haserretzen al zara aitarekin? Nagore

Pentsatu nik aitarekin lan egiten dut eta aparte nire entrenatzailea da eta erakustaldi guztietan elkarrekin ibiltzen gara. Elkarrekin hainbeste denbora egonda, tarteka tokatzen da haserrealdiren bat.

Zer erantzuten diozu zuena basakeria dela esaten dizunari?

Lehenengo aldiz ikusten duten gehienek esaten dutena da, baina saiatzen gara adierazten ez delaindar hutsa, teknika oso landua eskatzen duela eta kirol moderno bat dela beste asko bezala.

Zer diozu egungo Euskal Herriko egoera politikoaz? Jabier

Lema garbi bat daukat politikoei buruz: Lazkao Txikik esan zuen bezala, politikoak eta mizpirak berdinak dira, gero eta ustelago gero eta hobe. Bestela politikatik ez dut ulertzen eta ez dut ulertu nahi ere.

Zure seme edo alabak zure bideetik jarraitu nahi badu? Josune

Jarraituko duen ez dakit, baina espero dut jarraitzea, harri-jasotzaile bezala poztasun handia izango litzateke niretzako.

Harri-jasotzaile asko al datoz atzetik? Iban

18 urtetik behera, erreferentzi bat jartzeagatik, bi eskuetako hatzak baino gehiago ez dira izango seguruenik.

Zure aitari ere galdera bera egin nion behin, eta zuri ere egingo dizut. Zer sentitzen da harria jasotzean? Jon

Nik harria jasotzea arte bat kontsideratzen dut. Arte hori ahalik eta harri handiena jaso gorputzeko, ahalik eta indar gutxien gastatuz. Eman dezala harriak ez duela pisurik. Prestatzen egon ondoren, jasoaldi eder bat lortutakoan, nik behintzat sentitzen dudana ez dago adierazterik. Zoragarria da.



14°
9°

GOIZA
ARRATS.
BEROENA
HOTZENA

EGUZKIA
EGUZKIA
14°
10°

Argitaratzailea: Tolosa Herria Hedabideak S.L.
Lege Gordailua: SS-0398-03
Zuzendariak: Noelia Lataburu
Egoitza nagusia: Araba Etorbidea 5, atzea, Tolosa.
Telefonoa: 943 65 56 95. **Faxa:** 943 65 00 18
Leitza: Herriko plaza, 1. 687 410 118
E-posta: tolosaldean@tolosaldeko hitza.info.
Webgunea: www.tolosaldeko hitza.info

Zuzendariordea: Iñigo Terradillos. **Kudeatzailea:** Jon Mujika.
Publizitatea: 661 678 818 tolosaldean_public@tolosaldeko hitza.info.
Tolosa: 687 410 082-687 410 033. tolosa@tolosaldeko hitza.info.
Villabona: 687 410 022. villabona-aiztondo@tolosaldeko hitza.info.
Anoeta: 687 410 022. anoeta@tolosaldeko hitza.info.
Ibarra: 687 410 032. ibarra@tolosaldeko hitza.info.
Alegialdea: 687 410 034. alegialdea@tolosaldeko hitza.info.
Leizaldea: 687 410 118. leizaldea@tolosaldeko hitza.info.

Tolosa Herria Hedabideak S.L.ko kideak:

BERTAKO
HEDABIDEAK



eta Tolosaldeko eta
Leizaldeko beste 77 eragile

Hitza-k Bai Euskarari



'Hitza' diruz laguntzen duten erakundeak. Udalak: Aduna, Albiztur, Alegia, Alkiza, Altzo, Armezeta, Anoeta, Areso, Asteasu, Baliarrain, Belauntza, Berastegi, Berrobi, Elduain, Gaztelu, Ibarra, Ikaztegieta, Irura, Leaburu, Leitza, Lizartza, Orexa, Tolosa, Villabona, Zizurkil

Gipuzkoako
Foru
Aldundia

Hitza-ko bezeroen arreta zerbitzua (zalantzak argitzeko, harpidedun egiteko): **902 82 02 01**

A Agenda

Kirola

■ **Tolosa.** Indoor Futbol Txapelketaren barruan, Real-Real Madrid beteroenen partidua Usabal kiroldegian 20:00etan, Genaro Zelaizaren omenez. Aurretik Tolosa CFko alebiren partida.

Hitzaldiak

■ **Tolosa.** Barre azkarraren kultur elkarteak antolatuta, hitzaldia izango da 19:00etan Kultur Etxean, *Barre egiten ikastea, bizitzen ikastea da izenburupean.*

Deialdiak

■ **Alkiza.** Agenda 21 prozesuak bilera berria egingo du herritarrekin Kultur Etxean 20:30ean. Herritar guztiak bileran parte hartzea gonbidatzen dituzte, herriaren etorkizunaz hitz egingo baita.

Ikuskizunak

■ **Tolosa.** Ahoz aho jaialdiaren aurkezpen gala Fronton kafetegian 22:30ean jaialdiko aktore, komiko eta artistekin.

Zinema

■ **Leitza.** *Mi mejor amigo* filma emango dute gaur 22:30ean eta etzi 19:30ean.

■ **Tolosa.** *Los crímenes de Oxford* filma izango da ikusgai asteburuan Leidor aretoan: gaur eta bihar 22:30ean, etzi 19:30ean eta astelehenean 20:30ean.

» GUARDIAKO FARMAZIAK

■ **Tolosa.** Azpiroz, L. Amaro az-
zoa, 9. 943 675118.

■ **Iruztzun.** Mutíloa, A. M. San
Martin, 5. 112.

HITZAK ez du bere gain hartzen egunkariaren adierazitako esaneren eta iritzien erantzunik.



Haur Hezkuntzako ikasle guztiak bildu ziren eraikin ekologiko berriaren aurrean, Bandera Berdea atzean dutela. HITZA

Samaniego ikastetxea Haur Hezkuntzako eraikin ekologikoagatik saritua izan da; Ingurumen Hezkuntzaren Europako Erakundeak bigarren Bandera Berdea eman dio egindako lanagatik.

Ingurumena zaintzeak badu saria

ESTI EZEIZA

Ingurumena zaintzea denon betebeharra da, eta xede hau ganoraz betetzea aspaldi erabaki zuten Samaniego ikastetxe-ma. Hala, bigarren aldiz saritua izan da bereaiek egindako lana, eta honen adierazle Bandera Berdea jaso dute.

Ingurumen Hezkuntzaren Europako Erakundeak eman dio sari hau Tolosako ikastetxeari Haur Hezkuntzako eraikin ekologikoarengatik. Hau ospatzeko, ekitaldi berezia egin zuten atzo bazkalosteetan. Lehendabizi, ikasleak kalejiran joan ziren eraikin berrira. Bertan, Gorosti guraso elkarteokoin batera, ikasle batzuk hartu zuten

hitza. Jarraian, agurra dantzatu zuten Samaniegoko ikasle batzuek. Honen ostean, gurasoen txanda iritsi zen berriro, eta hauek, aitzurra hartu, eta gorosti bat landatu zuten. Jarraian, ikasle batzuen artean Bandera Berdea jaso zuten, ikastetxeko ate nagusiaren ondoan kokatuaz.

Amaitzeko, bertso batzuk abestu zituzten. Hauetan, «ingurumena zaintzen duen eraikin moderno» bezala deskribatzen zuten ikastetxea.



Ekitaldiaren baitan, euskal dantzak dantzatu zituzten. E. EZEIZA

A Agurrak



Urte askoan!

Oier Oreja Zubelzu. Gaur urtebete. Zorionak eta muxu handi bat familia osoaren partetik.



Urte askoan!

Libe Urdanpilleta Iribarren (Tolosa). Gaur urtebete. Muxu potolo bat etxekoaren partetik.

Atsedeen hartzeko etxea VILLATUERTAN duzu

ERAKUNTZA LANAK lagunduz

Tierras y Valles

Urtetas eta Andilako Parke Naturaren ondoan
Urbanizazio berezita
Binakako etxeak eta erakin abeltzaiak, 175m² erabilgaitur artekoak
300m² arteko partzeekin
30m² baino gehiagoko bilakapeak - 4 gela, 2 bainugela eta komunak
Lehenengo mailako materialak - Lehiarik gabeko prezioak

Oreaga Zubiri Eruta Gerni Villaverde Lizarras Las Arzas Legorbe

Tolosa
Lizarras
Samaniego kalea, 1, salaratuatze
Tel: 943 65 11 22 - Muga: 679 94 27 86

Aldai Vivendas
www.aldai-vivendas.com

Iruña
Gombi kalea, 30. behea
Tel: 948 29 14 13

Lizarras
Wanako Printzeraren kalea, 11, behea
Tel: 948 02 50 94